

Bilbon eraildako emakumea prostituta eta afrikarra zela esan behar al da?

June Fernándezek gidatzen duen *Pikara Magazine* blogean sortu da eztabaida. Eraildako emakumea prostituta eta afrikarra zela esatea beharrezkoa da ala kazetaritza horiaren seinale da?

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

JUNE FERNÁNDEZEK *El Correo*ren eta *Nai*zen adibideak aipatzen ditu artikuluan. Lehenengoak eraildako emakumea, prostituta eta afrikarra dela zehazten du, eta aldiz, *Nai*zek datu horiek ez ditu idatzi, Fernándezek dioenez, “seguruenik ez zekizkielako baina, eraso azaltzeko datu baliagarri bakarra biktima emakumea zela esatea uste zuelako”.

Ondoko lerroetan Fernándezek idatzitako artikulua pasarte batzuk dituzue euskarara ekarriak:

“Atzo lagun batek esan zidan kezkatuta zegoela, emakumea afrikarra eta prostituta zela esateak eraso matxistaren zergatietatik aldentzen zuelako, eta kazetaritza horia bultzako lukeelako.

Maria Almansa Sánchezek hauxe esan du: ‘Nik uste dut ez dela gauza bera. Emakumea, beltza eta prostituta izateagatik jo zuten, hirurak dira argitara ekarri beharrekoak’.

Kontua ez da krimen matxistei buruzko albiste ematea, baizik eta datuak eta hausnarketak eskura jartzea, jendeak uler dezan zergatik emakumeen aurkako biolentzia egiturazko arazo soziala den. Biolentzia azaltzeko elementu oinarritzak bote-re harremanak dira.

Garrantzitsua da jakitea biktima emakumea, immigrantea, beltza eta prostituta dela, eta era berean, inportantea da jakitea erasotzailea gizona, bertakoa, zuria eta enpresaria dela. Edozein emakumek jasan dezake biolentzia matxista, baina jatorriaga-



Erailaren lagunak elkarretaratzean.

tik eta azal koloreagatik adibidez, babesgabeago da emakumea. Era berean ordea, gogoratu behar da ez dagoela perfil bakarreko erasotzailearik (aurreiritziek diote immigranteak, toxikomanoak eta eroak direla), baina maila sozial jakin batekoa izateak eragin dezake maila baxuagokoak gutxiestea, eta prozesu judizialean abantaila izango du.

Biktima prostituta eta afrikarra zela esateko beldurra badago uste dugulako ‘besteetakoak’ balitz bezala hartua izango delako, eta ondorioz,

“Jatorriagatik eta azal koloreagatik babesgabeago da emakumea”

enpatia, haserre eta mugimendu sozial gutxiago eragingo duelako, bada beste erronka bat daukagu. Lehen eta bigarren mailako emakume herritarrak dauzkagula salatuko duen kazetaritza egin beharko dugu”.

Berrian ere bai

June Fernándezek landutako ikuspegi antzekoari heldu zion *Berria* egunkariak ere Bilboko erailketa kontatzeko. Albiste emateaz gain, Maite Asensiok eta Iñaki Petxarromanek hausnarketa interesgarriak jorratu zituzten. Lehenak “Babes gutxien duenari eraso” artikuluan (ttiki.com/51557) eta bigarrenak “Harria bota eta eskua gorde” izenekoan (ttiki.com/51558). ■

